

gaz-teak



Getxo
bizi ezazu

Doako alea

376 zb.
www.getxo.eus

>> 2023ko Martxo

Nabarmen^{tzekoak}

> Gazteria Zerbitzuak orientazio soziolaboraleko tailer bat jarri du abian

> Irrati tailerra Algortako Gaztelekuan

> Nazioarteko Boluntariotzako esperientzia bat, 18 eta 30 urte bitarteko gazteentzat

Gaztelagunen laguntzaren gehieneko diru-sarreraren muga aldatu da

Alokabidek, alokairu-politikaren bidez etxebizitzaren funtzio soziala garatzeko Eusko Jaurlaritzaren mendeko sozietate publikoak, aldatu egin du Gaztelagunen laguntza jasotzeko gehieneko diru-sarreraren muga. Orain hauxe da: taldearentzat eskatuz gero, 3.000-31.740€, eta familia ugariarentzat, 3.000-33.856€. Nolanahi ere, diru-sarrerarako ez dira kontuan hartzen diru-sarrera gordinak edo garbiak, baizik eta zerga-oinarri orokorraren eta aurrezkiaren baturaren zifra orokorra.

Zalantzak argitzeko hemen: etxebizitza@egk.eus

Euskal Herriko Unibertsitateko Ate Irekien Jardunaldia

UPV/EHUK Ate Irekien Jardunaldia antolatu du 2023/24 ikasturtean beren campusetan unibertsitate-ikasketak hastera doazen pertsonentzat: Batxilergoko, Goi Mailako Heziketa Zikloetako eta Arte eta Kirol ikasketetako 2. mailako ikasleentzat; unibertsitate sartzeko aukera duten 25, 40 eta 45 urtetik gorako pertsonentzat eta unibertsitateko ikasle eta tituludunentzat.

Ikasle bakoitzeko senide laguntzaile bat onartuko da (senideei ere zuzendutako jardunaldietan). Jardunaldiak martxoaren 17tik 25era egingo dira, eta izena emateko epea 2023ko martxoaren 6tik 12ra izango da. Jardunaldi irekiei buruzko argibide gehiago: <https://labur.eus/M9brY>



BEKAK SARIAK

* **Iberdrolaren bekak Master ikasketak egiteko.** Iberdrola enpresak bekak deitu ditu 2023/24 ikasturterako, Estatuko eta atzerriko unibertsitateetan graduondoko ikasketak egiteko honako arlo hauek: Ingeniaritza, Informatika, Matematika, Big Data, Zibersegurtasuna, Informazioaren eta Komunikazioaren Teknologia, Enpresen Administrazioa eta Marketin Digitala. Gradu edo lizentziaturako unibertsitate-titulua behar da eskabidea aurkezteko unean, eta ingeles-maila bikaina egiaztatuta. Zenbateko desberdinak herrialdeen arabera. Eskaearak: martxoaren 31ra arte. Argibideak: <https://labur.eus/xhms6>.

* **"Kultura Ondarea" saria.** Euskal kultura-ondarea zabaltzeko bideo-lehiaketa, Eusko Jaurlaritzak deitua DBHko 3. eta 4. mailako, batxilergoko 1. mailako eta Euskal Hezkuntza Sistemako Lanbide Heziketako erdi-mailako heziketa-zikloetako lehen mailako ikasleentzat, 3 eta 6 kideko taldeetan, tutore batek ordezkatuta. Saria: 7 eguneko bisita Napolira. Bideo banaketa: apirilaren 14ra arte. Argibideak: <https://labur.eus/i1YPK>

Romoko Gaztelekuaren programazioa Martxo

Hilak 2, osteguna: ASANBLADA: APIRILEKO PROGRAMAZIOA
Hilak 5, igandea: TAILERRA: LEGOAK
Hilak 8, 15, 22 eta 29 (asteazkena): TAILERRA: ANTZERKIA
Hilak 10, ostirala: TAILERRA: KORAPILOAK
Hilak 12, igandea: SUKALDARITZA: BURBUILETAKO TEA
Hilak 14, asteartea: JOLASA: MAHAI-JOKOAK
Hilak 18, larunbata: IRTEERA: GETXO ZINEMAK
Hilak 23, osteguna: SUKALDARITZA: PANINI
Hilak 25, larunbata: IRTEERA: MENDIA
Hilak 31, ostirala: ESKULANA: MOTXILAK KUSTOMIZATU

GureGune gazteleku

Algortako Gaztelekuaren programazioa Martxo

Hilak 2, osteguna: ASANBLADA: APIRILEKO PROGRAMAZIOA
Hilak 8, 15, 22 eta 29 (asteazkena): IRAKURKETA KLUBA
Hilak 10, ostirala: MARRAZKETA
Hilak 12, igandea: GAZTE ZINEMA: GAZTELEKUAN
Hilak 16, 23 eta 30 osteguna: IRRATI TAILERRA
Hilak 18, larunbata: IRTEERA: LAUREN GETXO ZINEMAK
Hilak 24, ostirala: MASTER CHEF: HOT DOG
Hilak 25, larunbata: IRTEERA: TXANGO MENDIRA
Hilak 31, ostirala: MASTER CHEF: FRUTAZKO BROXETAK TXOKOLATEAREKIN

GauEgun gazteleku

Gazteria Zerbitzuak orientazio soziolaboraleko tailer bat jarri du abian

Udaleko Gazteria Zerbitzuak 16 eta 23 urte bitarteko gazteei orientazio soziolaborala emateko tailer praktikoa jarriko du abian. Lorena Pla Ladrech hezitzaileak emango du, martxoaren 15, 22 eta 29an, 18:00etatik 20:00etara, **Urgull Zentroan** (Algorta).

Tailerra hiru saiotan banatuta egongo da, bakoitza bi ordukoa. Lehenengoan, adimen anizkoitzei buruz hitz egingo da, eta horrek parte-hartzailearen indarguneak, baliabideak eta mugak zeintzuk diren jakiten lagunduko du. Bigarren saioan, pertsona bakoitzaren mapa egingo da, bere lan-ibilbidean non kokatzen den eta norantz joan nahi



duen jakiteko. Hirugarren eta azken saioan, gazteek praktikan jarriko dute ikasitakoa, lanbide-mailan dituzten hel-

buruak zirriborrotuz eta horiek lortzeko zer txertatu edo askatu behar duten ikusiz, egungo lan-ingurunea kontuan hartuta.

"Getxoko gazteei ikuspegi praktikoa batetik enplegu-aukerak hobetzen laguntzea, haien gaitasunak eta trebetasunak eta autoeragin-kortasun-sentimendua identifikatuz eta indartuz, eta haien autonomia sustatzea helburu duen ekimena da", Gonzalo Ayo Gazteria zinegotziak azaldu duenez.

Interesa dutenek eman ahal izango dute izena Gazte Bulegoan, gaztebulegoa@getxo.eus helbide elektronikoan eta 688 88 09 85 telefonoan.

Irrati tailerra Algortako Gaztelekuan

Hilabete honetan, 12 eta 17 urte bitarteko gazteentzako irrati-tailerra egingo da Algortako Gauegun Gaztelekuan, Udaleko Gazteria Zerbitzuak antolatuta, Vinilo FM tokiko irratiarekin elkarlanean.

Tailerra hiru ostegunetz jarraian emango da (martxoak 16, 23 eta 30), 17:30etik 19:00etara. Lehenengo bi egunetan prestakuntza emango da eta hirugarrenean egun horretan bertan emango den programa bat grabatuko da. Ez du alde aurreko esperientziarik behar, ezta trebetasun zehatzik ere. Gazteen jarrera ona eta ikasleko eta irratiaz gozatzeko go-go besterik ez da espero.

Ekimenaren helburua da parte hartzen duten gazteek komunikazio-trebetasunak eta



irradi-programa baten funtzionamendua ikastea, ikasuntza-prozesu praktikoa baten bidez. Gure ustez, tailer hauek kultura-gaitasun berriak eskuratzeko aukera ere ematen dute, eta sormenaren sozializazioan eta

garapenean laguntzen dute.

Informazio gehiago eta izen-emateak 688 84 03 56 telefono zenbakian eta aisibiziaz@getxo.eus helbide elektronikoan.

Nazioarteko Boluntariotzako esperientzia bat, 18 eta 30 urte bitarteko gazteentzat

BizkaiaGarak, Bizkaiko Foru Aldundiak, EDE Fundazioak eta BBK-k sustatzen duten herritarren ekintzarako, boluntariotzarako eta lurraldeko pertsona, erakunde eta erakunde zerbizura dagoen lan komunitarioarako guneak, Nazioarteko Boluntariotzari buruzko informazioa biltzen du, 18 eta 30 urte bitarteko gazteentzako esperientzia.

Europako Elkartasun Kidegoak (EEK) bultzatutako ekimena da, gazteek boluntario gisa lankidetzan jarduteko aukera izan dezaten Europa osoko komunitateentzat eta herritarrentzat onuragarri izango diren proiektu solidarioetan.

Esperientzia honen bitartez, gazteek 2 eta 12 hilabete arteko aldia egiten dute boluntariotza jardueretan. Aldi horretan, tokiko proiektuen ekintzetan parte hartzen dute, hainbat arlotan: gizarte-bazterketa, ingurumena, ezgaitasuna, giza eskubideak, aisialdi eta kirola, etab. Proiektu horie-



tan, hiru aktorek parte hartzen dute beti: laguntza organizazio edo erakundeak, harrera erakundeak eta boluntariotza esperientzia bat bizi nahi duen gazteak.

BizkaiaGara entitateak programa honetan organizazio laguntzaile modura parte hartzeko erakunde ziletua da.

Baldintza gisa eskatuko dute organizazioen batean boluntario gisa aktiboki parte hartzen aritzea.

Boluntariotza proiektuei buruzko informazio gehiago jaso nahi baduzu: <https://www.bizkaiaagara.eus/eu/ekintza/nazioarteko-boluntariotza> eta [europa@bizkaiaagara.eus](https://www.europa@bizkaiaagara.eus).